

1. CALL CENTER 24 ORDU (24x7x365)

Gau eta eguneko zerbitzua eman dezakegu, **bai osorik**, hau da, telefono bidezko arreta erabat gure gain hartuz, **bai partzialki**, alegia, langilerik ez duzuen orduetan (asteburuan, gauetz, oporraldietan, e.a.) zuen telefonoak gau eta eguneko gure plataformara bideratuz. Gainera, zure enpresan edo erakundearen plataforma bat jartzeko aukera ere eskaintzen dugu.

ABANTAILAK:

- Telefono bidezko arreta gau eta egun eman ahal izatea, urte osoan.
- Zerbitzuaren kostua edozein enpresa edo erakundek erraz onartzeko modukoa da (hileko gutxieneko tarifaz eta dei bakoitzeko gutxieneko tarifaz dago osatua).
- Help Desk eskusiboa jartzeko aukera dago.
- Gau eta eguneko telefono bidezko arreta eskaintzea balio erantsia da, lehiakideen aldean eduki dezakezun bereizgarri bat.

KASU PRAKTIKO BAT:

Bezeroa: Hainbat udalerritako ur zerbitzuak gestionatzen dituen enpresa bat.

Eskaera: Bezeroen telefono bidezko arreta osatzea (laguntza teknikoa eskaintzea, erreklamazioak jasotzea, intzidentzien berri ematea, kontagailuak irakurtzea, e.a.).

Planteamendua: Abaltzisketako dei zentroan plataforma elebidun bat jartzea, telefono bidezko arreta gau eta egun eskaintzeko, urte osoan.

EMAITZAK:

- Zerbitzuak osatzea, bezeroei arreta profesionala eta kalitatezkoa eskainiz.
- Bezeroak gogobetetzea, arreta berehala jasotzen dutelako.

